

noaue

**Zubieta Lantzenek
erraustegiaren
kutsadura
neurtuko du**

**Eguzki elkarteak 50.
urtemuga ospatuko
du larunbat honetan**



Maitane eta Eli Eizagirre, Baxurde Kroseko parte-hartzaileak:

**“Irribarre batekin amaitzea gustatzen zaigu,
sufritzearen kontua ez doa gurekin”**

HHI-EPA USURBIL HELDUEN ESKOLA

2019-2020 Ikasturtea

Matrikula epea zabalik

• **HEZKUNTZA OROKORRA** (Oinarritzko kultur formakuntza: Ingelera, Gaztelania, Irakurketa, idazketa. Kalkuloan hastapena eta hobekuntza. Oinarritzko informatika. Memoria lantzeko joko linguistikoak eta joko matematikoak. Natur Zientziak. Geografia. Historia eta historiarekin erlazionatutako mugimendu artistikoak...)

• **DBH-ko titulua** (4 hilabeteko ikastaroak)

• **IRTEERA DIDAKTIKOAK URTEAN ZEHAR**

• **IKASTURTE AMAIERAKO BIDAIA ATZERRIRA**



ARGIBIDEAK: 943 36 66 08 info@epalasarte.eus



serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industria serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

www.serigrafiaiosu.com

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL

**kanpokaldeko
dekorazioa!**

URTINEA

San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55

ERREFUSAREN BILKETAREN EGUTEGI ZUZENA 2019

(ZUZENDU NOAUAKO EGUTEGITIK)

IRAILAK >>>>>> 8, 22

URRIAK >>>>>> 6, 20

AZAROAK >>>>>> 3, 17

ABENDUAK >>>> 1, 15, 29



Albisteak iruditan

Auzune berria eraikitzeko lan betean Ugartondon



Ugarte baserri atzeko eremuan lan betean dira, etorkizunean bertan kokatuko den auzunea eraikitzeko obretan hain zuzen. Babes ofizialeko 92 etxebizitzek beteko dute egun aipatu lur eremuan dagoen hutsunea, baita Txirikorda, belaunaldi arteko etxebizitza komunitarioak ere. Horrez gain, salmenta libreko 31 etxebizitza ere eraikiko dituzte.

Laburrean

1955ean jaioetakoen kinto eguna, urriaren 19an

Añana Gatzaga bisitatu, Nerbioi saltoa ikustatu eta Urduñan bazkaldu. Aurrekontua, 65 euro inguru. Izena eman iraila bukatzerako, erreserbak garaiz egiteko. Maribi (675 006445), Patxi (615760458). Edo emailaz: 1955usurbil@gmail.com

1979an jaioetakoen kinto bazkaria

“Xetentainuebe-ko kintoek urriaren 12an bazkari batekin ospatuko dugu 40 urte betetzen ditugula”. Garai berekoa izan eta animatzen bazara, mezua bidali telefono zenbaki honetara: 666 093 592 (Saioa).

1969an jaioetakoak, urriaren 26an Atxegan

“Bazkalostean, musika eta giro ona izango ditugu”, iragarri dute. Aurten 50 urte beteko dituztenen bilkurarako izen ematea aurrez bideratu beharko da, urriaren 18a baino lehen 50 euroko ordainketa eginda: 3008 0259 17 40382 18121 (Rural Kutxa).

noaqua

Kultur Elkarte
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 ||| elkarte@noaqua.eus ||| www.noaqua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeka.
Idazkaria: Aizpea Aizpurua.
Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeka, Aritz Lasarte,
Itxaso Orbegozo.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaqua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Jon Galbete.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaqua.eus



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herrerria!



Imanol Ubeda

Taupadaz taupada bizten eta itzaltzen

Urrutitik zetorren whatsapp: *Iñigo Muguruza hil da*. Behin baino gehiagotan irakurri behar izan nuen. Ez da posible. Sare sozialetara jo nuen baina ez nuen ezer topatu. Bere anaien profiletan arrastorik ez. Egia izango al da? Zurrumurru bihotzgabe bat akaso? ‘Fake news’ garai hauean, edozer gauza.

Gutxira jakin nuen benetakoa zela mezua; Iñigo Muguruzaren ahotsa itzalia zela. Asteburu osoa pasa dut albiste burutik ezin kendu. Ezustean datorrenean beti da latza kolpea. Are gehiago gertuko dutenentzat. Aspaldian kontaktua galdu samarra genuen arren, tristura lehor batek bildu ninduen aurreko oste-

gunean.

Musikaren mundu gorabeheratsu honek gauza ederrak ditu. Lagun ugari egiteko aukera eskaintzen dizu. Muguruzatarrak ezagutzeko aukera izan genuenean, arrakastaren uberran ziren Iñigo eta bere anaia Fermin. Hasi berriak ginen gu. Urte asko pasa dira geroztik. Bide ezberdinak urratu genituen gero, baina harremana eta elkarrekiko miresmena beti egon da bizirik.

Talentu handiko musikaria zen Iñigo. Eta alaia. Bibrazio onak eragiten dituen pertsona horietakoa. Irribarrea beti gertu. Hala oroituko dut.

Kontalari ona zen eta maiz baliatzen zituen film nahiz serieetako irudiak edo esaldiak. Jantzia bezain apala zen. Be-

hin baino gehiagotan arrakastaren gailurrera iritsi bazen ere, sekula ez zuen apaltasuna galdu. Izan ere, aparretan zaudenean hain da erraza harrotzea... Ez zen Iñigoren kasua. Eta hori zen hain miresgarria egiten zitzaidana.

Azken urteotan ez nuen Iñigorekin topo egiteko aukerarik izan. Bere anaien bitartez jakin nuen gaixorik zela. Eta gaixoaldiak eraginda, gaizki samar pasatzen ari zela.

Ezin osatu zebilela jakin arren, berari deitzeko astirik ez nuen hartu. *Zer moduz zaudete, Iñigo?* triste bat ere ez nion idatzi. Pena dut orain.

Irungo musikariaren inguruko artikulak eta idatziak irakurtzen pasa ditut azken egunak. Markos Zapiainen

iruzkin hau blog batean topatu dut: “Eritasuna baino askoz ere lehenagokoa zuen heriotzaren kezka. Beti sortu nahi izan zuen abesti bat bizitzaren eta heriotzaren arteko loturaz, eta arreta deitu zioten Joxan Artzeren bertso hauek:

Sortzean hasi bahaiz bizitzen, sortzean hasi haiz ere hiltzen. Taupadaz taupada bizten hoan heinean, taupadaz taupada hoalarik ere itzaltzen...

Eta horri zeritzagu bizitza. Eta zergatik ez heriotza?”

Zer diren gauzak. Poetaren ahotan topatu dut sosegua. Iñigoren heriotzak eragin didan aldarte eskasa arintzeko erantzunik argiena.

Aroa Etxeburua Ugartemendia | Itxaso Orbegozo | **Imanol Ubeda** | Aritz Gorriti | Luis Aranalde | Garazi Lizaso Manterola | Luken Arkarazo

Usurbilgo 332 leku-izen, Euskadiko Izendegi Geografikoan

Sarean edonork aurki ditzake Usurbilgo leku-izen guztiok, Eusko Jaurlaritzak herritarren eskura jarri duen Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako baliabide elektronikoko berrian.

Usurbilgo auzo, baserri, erreka, langa, industrialde, tontor, sagardotegi, etxe, jau-regi, eskola, eliza, aurkintza, mugarri eta abarren izenak aurki daitezke, haien gaineko hainbat xehetasunekin bate-

ra Eusko Jaurlaritzaren atari berrian. Guztira, 81.248 fitxa bildu ditu Eusko Jaurlaritzak. Haietatik 332 Usurbilgo leku-izenak dira.

2010ean hasi zuten lanke-ta, Europar Batasunak finkatutako ereduari oinarrituta. Baliabide honetako edukia eguneratzen, berritzen eta hobetzen segiko du Eusko Jaurlaritzak, udal eta foru aldundiekien elkarlanean.

Informazio gehiago: euskadi.eus

Usurbilgo Gizarte Zerbitzuak, Emakunderen mapa geolokalizatuan

Indarkeria matxistaren biktimaren emakumeen zuzenduriko arretarako baliabide eta zerbitzuen mapa geolokalizatua aurkeztu du uda honek Emakundek.

Mapak Eusko Jaurlaritzako bost sailek, hiru Foru Aldundiek eta EAE osoko udal eta mankomunitateek hornituriko informazioa biltzen du. Tartean, Usurbilgo

Udaleko Gizarte Zerbitzuetako eskaintza; “informazio, balorazio eta diagnostiko espezializatutako zerbitzua”. Hitzokina deskribatzen du mapak Usurbilgo zerbitzua: “Oinarritzko gizarte-zerbitzua arretaren unitate balioaniztuna eta diziplina anitzekoa da, udalaren gizarte-zerbitzuetan integratua, eta unitate horrek herritarrek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarako sarbidea izateko lehen puntu gisa jarduten du”.

Garbitaniako gidari-biltzaileen lan-poltsa

Etorkizunean sortu da-kioken behin behineko edo aldi baterako beharrak asetzeko edota “hala badagokio, lanpostuak horrela eskatuko balu, behin-betiko kontratazioak” egiteko hondakin gidari biltzaileen lan-poltsa handiagotzeko hautaketa prozesua deitu du Garbitania Zero Zabor S.M. enpresak.

Garbitaniak ohartarazi duenez, hautaketa prozesuan fase guztiak gainditzen dituzten hautagaiekin handituko den lan-poltsa gehienez 5 urtez izango da indarrean edo “deialdi berria egin arteko iraupena izango du”.

Garbitaniaren deialdiaren xehetasunak:

- Hautaketa prozedura: bi fase, oposizio aldia (60 puntu) eta lehiaketa aldia (40 puntu).
- Epaimaihai kalifikatzailea: Garbitania Zero Zabor S.M.ren Administrazio Kontseiluak izendatutakoa.
- Bete beharreko baldintzak: 16 urte beteak izatea, eskola-ziurtagiria izatea, 1. hizkuntz eskakizunari dagokion



Kamioiak gidatu eta bilketa burutzea izango dira zereginetako batzuk.

LAN POLTSAREN IRAUPENA

Lan-poltsa gehienez bost urtez izango da indarrean edo “deialdi berria egin arteko iraupena izango du”

euskara maila, C gidabaimena edo baliokidea izatea...

- Eginkizunak: atez ateko bilketa lanak sistema hau duten udalerrietan, kamioiak gidatu eta bilketa burutzea, kamioiaz arduratzea, larrialdi guneen bilketa eta garbiketa, inziden-

tzien eta sortutako hondakinen ordainketak kontrolatzeko sistemen aplikazioa eta jarraipena, ontzi eta posteen garbiketa...

- Urteko ordainkizun gordina: 27.875,24 euro.

■ Lan ordutegia: Garbitaniak urtez urte zehaztutakoa, lanpostuaren izaeraren eta zerbitzuaren premien arabera.

- Eskabideak: irailaren 13a baino lehen, Garbitania Zero Zabor S.M.ren bulegoetan aurkeztu 9:00-14:00 artean edo postaz bidali helbide honetara: Lastaola Poligonoa 3. A-12 eraikina, 20120 (Hernani).

■ Oharra: eskabideak aurkez-

teko epea itxi ostean, hurrengo hamabostaldian plazaratuko ditu Garbitaniak, onartu eta bazterturiko eskabideen zerehendak garbitania.eus atarian.

■ Informazio gehiago: garbitania.eus

■ Deitzailea: Garbitania.

Ekintzaileei zuzenduriko bi diru-laguntza deialdi

Ekintzaileei zuzenduriko bi udal diru-laguntza lerroetara eskabideak aurkezteko epeak zabalik segitzen du irailaren 30era arte. Batetik, komertzio hutsetan negozio berri bat martxan jartzeko. Diru-laguntza honen xedea, alokairu gastuetan laguntzea litzateke. Hasiz Hazi beka deialdiak ere abian segitzen du. Beka honek, Kabiene Elkarlan Gunean diruz lagundutako urtebete-ko egonaldia egitea ahalbidetuko dio, 2019. urtean enpresa proiektu berri bat izan eta Beterri-Buruntzako udalerriren batean erroldaturiko ekintzaileari.

Pasabide iluna, argitsua orain

Usurbilgo espazio publikoa aktibatu, eta horrekin batera, herri bizitza eta tokiko merkataritza suspertzeko udal egitasmoaren baitan, egoera kaskarrean zen Kale Nagusia 10eko ondoko irudiko pasabide iluna argitu dute. Zuriz margoztu eta argiztatu dute.

Handik gertu, Olanoeneko plazaren erabilera bultzatzeko egurrezko gunea eta mahai zein eserleku finkoak jartzekoa da Udala.



Kale Nagusia 10eko pasabide iluna argitu dute.

Euskara ikasi edota hobetzeko aukera paregabea

2019-2020 ikasturte berri-rako matrikulazio epea dagoeneko irekita dago. Euskara ikasteko aukera asko dago Buruntzaldeko sei herrietan: Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilen. “Hauxe da momentua eta aukera paregabea pausoa emateko: euskararik ez dakienak ikasteko eta euskaraz zerbait dakienak hobetzeko”, Buruntzaldeko udal ordezkariak aditzera eman dutenez.

Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udalek bat egin dute beste behin ere. Euskara ikasi edo hobetzeko helburuarekin euskaltegietan izena emateko kanpaina abiarazi dute oraingoan. Aipatutako sei Udalak Andoainen elkartu ziren aurreko astean, 2019-2020 ikasturterako matrikulazio kanpaina babestu eta herritarren artean bultzatzeko xedearekin.

ESKaintza zabala

Euskaltegi guztietan dago astelehenetik ostiralera bitarteko eskaintza, goizetan, eguerdian eta arratsalde-iluntzeetan banatuta. Maila guztietako



Aurreko astean, matrikulazio kanpaina berria aurkeztu zuten Buruntzaldeko udal ordezkariak eta euskaltegiako kideak.

ESKANTZA BEREZIA

“Buruntzaldeko sei herrietan ia-ia doakoa da, eta kasu batzuetan guztiz doakoa euskara ikastea, baldintza batzuk betez”

ikastaroak daude: A1, A2, B1, B2 C1 eta C2. Euskaltegira bertara joaterik ez duenak ere badu aukera autoikaskuntza sistemaz baliatzeko. Herri batean ez bada bestean aurkitu daitezke norberaren premia eta ordutegietara egokitutako

aukera ezberdinak. “Euskaltegi guztiak daude HABEK homologatuak, eta profesional trebatuak dira klaseak ematen dituztenak”, kanpainaren sustatzaileek aditzera eman dute.

Buruntzaldeko sei udalek ematen dituzte diru laguntzak

Buruntzaldean euskara ikastea oso merkea da. “Sei herrien artean badira ezberdintasun txiki batzuk, baina sei kasuetan ia-ia doakoa da, eta kasu batzuetan guztiz doakoa euskara ikastea, baldintza batzuk betez”. Sei udalek ematen dituzte diru

laguntzak eta baldintzak oso antzekoak dira. Herri guztietan nahitaezkoa da bermatzea klaseetarako gutxieneko asistentzia mailaren bat (%80 - %85); diru laguntzen kopurua herriz herri aldatu egiten da, eta matrikularen % 70etik % 100era bitarteko laguntzak ematen dituzte Udalek.

Udal laguntza hauez gain, HABEK ere diru laguntzak ematen ditu. “Horregatik, bada, ez da garestia, merkea baizik, kasu askotan doakoa izateraino”, euskara ikaste-ko euskaltegian matrikulatuta aritzea Buruntzaldean.

Matrikulazio epea zabalik da

Matrikulazio eta informazio epea irekita dago (ikaske-ta-motak, ordutegiak, dirulaguntzak, eta abar). Etumeta AEK euskaltegietan egin behar da matrikula, eta bertan

eskuratu liteke norberak behar duen informazioa.

Aldi berean, ordea, Internet-en ere eskura liteke euskaltegiei eta euskara ikastaroei buruzko informazioa, bai

udal bakoitzaren web gunean (Usurbilgo kasuan, www.usurbil.eus helbidean), eta baita ere ondorengo helbide honetan: www.buruntzaldea.eus

Udalen helburua, 1.000 ikasle
2017-2018an, guztira, 924 ikasle aritu ziren Buruntzaldeko euskaltegietan. Udalen helburua da, 2019-2020 ikasturte berrian 1.000 ikasletara iristea.

ALDAMU
KONPONKETAK
KALE NAGUSIA 10- atzekoaldea
943 372 795

EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008

Otar-Goxo
Elkagaitak
Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

Ikastaroetan izena emateko garaia da

KzGunea

Irailean 16:00-20:00 artean irekiko dute KzGunea. Hemen da tozen ikastaroen berri:

■ Irailak 12-13, 18:00-20:00 "Online izapideak Osakidetza-rekin".

■ Irailak 16-27, 16:00-18:00 "Ofimatika tresnak".

■ Irailak 23-25, 18:00-20:00 "Zure bidaia planifikatu".

■ Irailak 30, 16:00-18:00 "Musika aplikazioak zure Smartphonean".

■ Informazio gehiago: tutor.usurbil@kzgunea.net
943 023 684 / Nagusia, 37.

Etumeta AEK euskaltegia

Euskara ikasteko maila guztiak, Mintzalagun, autoikas-kuntza... eskaintza zabala aurtun ere euskaltegian. Urriarekin batera abiatuko den 2019-20 ikasturte berrirako matrikulazio epea zabalik dute.

■ Informazio gehiago: Nagusia, 43
607 609 379
usurbil@aek.eus
aek.eus
muntteri.blogspot.com.es

Esperientzia Eskola

Irailaren 17an hasiko dute ikasturte berria. 55 urtetik gorako herritarrei zuzenduriko doako eskolako izen ematea Gizarte Zerbitzuetan bideratu behar da.

■ Informazio gehiago: 943377110.

Einean

Guraso Eskola

Irailaren 20a baino lehen bideratu behar da izena, Einean Guraso Eskolak iragarri duen ikastaro eskaintza honetan:



Susana Martinen pintura eskolako irratian hasiko dira, baina aldeztu aurretik eman behar da izena.

Oinarrizko argazkilaritza digitala

■ Oinarrizko argazkilaritza digitala I:
■ Noiz: asteartero 19:00etan.
■ Ordu eta erdi.
■ Iraupena: urria-abendua.
■ Adina: 16 urtez gorakoen-tzat.

Oinarrizko argazkilaritza digitala II:

■ Noiz: ostegunero 19:00etan, ordu eta erdi.
■ Iraupena: urria-abendua.
■ Adina: 16 urtez gorakoen-tzat.
■ Baldintza: Lehenengo zatia egina izatea edo argazkilaritza digitalari buruzko ezagutza izatea.
■ Irakaslea: Ibai Arrieta (635 70 14 73 / argazkikastaroa.usurbil@gmail.com).

Bitxigintza ikastaroa

■ Noiz: astean behin bi ordu.
■ Iraupena: urria-ekaina.
■ Zehaztasunak: "Ikastaro honetan esperientziaz gozatuko dugu. Bitxiak egiteko dauden aukeretako batzuk ezagutuko ditugu eta teknika ezberdinak praktikan jarri, guretzako edo oparitzeko bitxiak sortuko ditugu".
■ Irakaslea: Agara Agirre, (653710073).

Laboreak

■ Noiz: astean behin bi ordu.
■ Iraupena: urria-ekaina.
■ Zehaztasunak: bolilloak, punto cruz, gantxilloa...
■ Irakaslea: Juani (609413883).

Yoga

■ Noiz: astean behin ordu eta erdi.
■ Iraupena: urria-ekaina.
■ Zehaztasunak: luzaketak, arnasketak, lasaitzea...
■ Irakaslea: Katia (636 71 15 14) / Sebas (605 72 28 25).

Pintura

■ Noiz: astean behin bi ordu.
■ Iraupena: urria-ekaina.
■ Zehaztasunak: oleoa, akua-rela, pastela...
■ Irakaslea: Susana (609 41 38 83).

Eskulanak

■ Noiz: astean behin bi ordu.
■ Iraupena: urria-ekaina.
■ Zehaztasunak: teknika ezberdinak ikasi gauza politak sortzeko edo berritzeko. Irakaslea: Susana (609 41 38 83).

Sabel dantza / Hip hop

■ Noiz: astean behin ordu eta erdi.
■ Iraupena: urria-ekaina.
■ Zehaztasunak: bi dantza hauek ikasteko aukera.
■ Irakaslea: Uarda (63725 6851).

Katekesian izena emateko egunak

Salbatore Parrokiko katekesian izen emateak: irailaren 17an eta 18an, 18:00etatik 19:30era, Parrokia etxean. Gurasoak bertaratzea komeni da.

Santuenea Elkarteko eskaintza

Eskaintza zabala prestatu du auzo elkarteak ikasturte berrirako:

Astelehenak:

■ 17:15 Tai-Chi
■ 19:10/20:15 Aeroyoga.

Astearteak:

■ 9:05/ 14:45 Aeroyoga.
■ 10:10 Errestauratiboa
■ 16:00-17:30 / 18:30-20:00/ 20:30-22:00 Hatha yoga.

Asteazkenak:

■ 18:05/19:10/20:15 Aeroyoga.

Ostegunak:

■ 09:05 Aeroyoga.
■ 10:10 Errestauratiboa.
■ 17:00 Reiki.
■ 20:30-22:00 Hatha yoga.

Ostiralak:

■ 17:15 Tai-chi.
■ 19:00 Pintura ludotekan.

Hasiera data, izen ematea:

■ Santuenea 12koak:
Aeroyoga: irailak 16 (615 71 59 91).
Yoga: irailak 24 (619 79 11 70).
Ttai-chi: Urriko lehen astean (jubilatuetan). Izen ematea: 675 006 445 (Mari-bi), 645 720 696 (Rosarito).

■ Santuenea 16koak (Ludoteka):
Pintura (haurrak): Irailak 6 (630 20 84 71/ 670 02 77 31).

Erraustegiaren kutsadura neurtuko du Zubieta Lantzenek, nazioarteko adituen laguntzaz

U rte luzez “mila aldiz” adierazi dute beharrezkoa izan ez eta inposaturiko erraustegi honen aurka direla, badiela alternatiba merkeago eta osasuntsuagoak. Halere erraustegia eraiki diete 500 metrora. Martxan jartzeaz dutela esana diete gainera, nahiz Osasuna eta Erraustegia Ikerketa Taldeko (OEIT) medikuak nazioarteko ikerketetako datuetan oinarrituta, erraustegiek inguruan bizi direnen osasunean duten eragin kaltegarriaz ohartarazten dabilzan. Eta Foru Aldundia, erraustegiak airean, lurrian eta herritarren osasunean eragin eta kalterik izango ez duela bermatuko duen jarraipen plan bat garatzera legez derrigortua egon arren, gaurkoz plan honen berririk ez dute Zubietan...

Testuinguru honetan noski, 10 kilometroko erradioan erraustegiak milaka herritarren bizitzan eta osasunean izango duen eraginagatik kezkatuak daude. Horregatik, zubietarrek irailaren 5ean errebote plazan hedabidean aurrean luzatu zuten galdera argia zen; “nola egingo gara lasai?”.

Ez daude lasai, eta Zubieta Lantzen elkarteak deitutako hitzordu hartan argi adierazi zuten moduan, “zubietarrok ez gara besoak gurutzatuta geratuko”. Zikin eta buruhauste eragilezat definitu zuten erraustegia ez piztea eskatzearekin batera, eta alde zuzenetik hedabideei bidalitako deialdian aurreratu bezala, erraustegiari lotutako ekimen garrantzitsu eta berria plazaratu zuten; Gipuzkoako erraustegia martxan jartzen badute, haren kutsagaiak zientifikoki neurtuko dituztela iragarri zuten. “Zubieta Lantzen elkarrearen bidez hainbat zubietarrek erabaki dugu gure gain



Holandako Toxicowatch Fundazioarekin batera, “Eusko Jaurlaritzak akreditatutako Euskal Herriko enpresa bat” ariko da azterlan honetan.

ZUBIETA LANTZEN

“Hedabideetan publikatutako ditugu emaitzak, eta beharrezkoa ikusiko balitz, nazioarteko publikazio zientifikoetan ere argitaratuko ditugu”

hartzea, ahal dugun neurrian, hondakinen eraketak Zubietatik Gipuzkoa osora zabalduko dituen kutsagaiak neurtzeko lanak. Goragoko instituzioek dagoeneko martxan eduki beharko luketena”.

Toxicowatch, gobernuz kanpoko zientzialarien elkargo holandar bat

Nabarmenezko moduko bi bidelagun izango dituzte zere-

ginotarako. “berme zientifikoa eskaintzen duten pertsona eta erakundeengana jo dugu. Eta dagoeneko bi eragileekin lotu ditugu kontrol horren lehenbiziko atalak”. Batetik, “Toxicowatch, gobernuz kanpoko zientzialarien elkargo holandar bat”. Ikerketa zientifikoak diseinatu, gauzatu eta argitaratzen dituzte. “Toxicowatch gure proiektu honetan inplikaturik izateak proiektzio eta fidagarritasun zientifiko internazionala ziurtatzen dio proiektuari, mundu mailako punta puntako ikerketen parean jarriaz proiektu hau”. Holandako gobernuak bertako erraustegi baten kutsadura legezkot mailen azpitik zebilela esan izana gezurtatu ahal izan zuen. Inguruko oila-

tegiak ikertu “eta frogatu zuen hori ez zela egia, eta emisioak inguruak kutsatzen ari zirela, une batzuetan legeak esandako mailetatik askoz gorago”.

Holandakoarekin batera, “Eusko Jaurlaritzak akreditatutako Euskal Herriko enpresa bat” ariko da azterlan honetan. Batak zein besteak izango dituen zereginak ere aurkeztu zizkiguten. “Toxicowatch fundazioak ikertuko ditu, batetik lurra eta bestetik bioakumulazioko fenomenoak izan ditzaketen zuhaixkak edo zuhaitz formako landareak eta arrautzak, metodo zientifikoa jarraituz”. Euskal Herriko enpresak “metal astunen azterketa eta jarraipena egingo du”.

Proiektuaren gardentasuna defendatu zuten zubietarrek, “Gipuzkoako Aldundian inondik ere ikusten ez dugun jarripena bat”. Zubieta Lantzen esanetan, “prozedura ahal den zientifiko eta aseptikoenarekin ikerketa honen fase guztietan gardentasuna bermatuko dugu. Emaitzak eskuragarri egingo dizkiogu herritarrei eta baita nazioarteko komunitate zientifiko osorako. Hedabideetan publikatutako ditugu emaitzak, eta beharrezkoa ikusiko balitz, nazioarteko publikazio zientifikoetan ere argitaratuko ditugu”.

Autodefentsarako ekintza

Ekimen hau autodefentsa ekintza gisa aurkeztu zuten. “Oso garrantzitsua da lehen pauso hau eta dagoeneko lotuta daude azterketak egingo ditugun oilategiak, lurra eta landaredia. Gure datu propioak gure esku izatea, ametsgaizto honen aurkako autodefentsa neurri gisa planteatzen dugu”.

Laginak hartzea etorriko dira
Presazko ekintza da zubietarrek martxan jarriko dutena. “Ikerketa ongi abiarazteko garrantzia handikoa da lehen neurketak preoperazio fasean egitea, hau da, erraustegia martxan jarri baino lehenago. Horri esker, hurrengo urteetako emaitzekin konparatzeko aukera izango dugu. Hortik

dator gure presa proiektu hau lehenbailehen abiaraztekoa”, argitu zuten. Horregatik, laginak hartzea etorriko dira zientzialariak datozen asteotan. Laginak hartu eta analitika egingo dituzte. Hartara, “Aldundiak erraustegia piztuko balu, jarraipena egin eta emaitzak alderatu ahal izango genituzke”.

“Gure helburua erraustegia ez piztea da”

Zubietan kokaturiko Gipuzkoako erraustegia martxan jartzen badute, isuriko dituen kutsagaiak zientifikoki aztertuko dituztela iragarri arren, urte luzeotako helburu nagusiak bizirik segitzen duela gogorarazi nahi izan zuten zubietarrek erreboten plazako agerraldian. “Guk nahi duguna da erraustegia ez piztea, nahiz eta hau (ikerketak zientifikoa) aurrera eraman, eta pizten bada lehenbailehen gelditzea”, adierazi zuten. Horregatik, erraustegia geratzeko datozen ekintzetan parte hartzea deitu zuten.

Erraustegia urria erdialdean martxan jartzea aurreikusten dute

Zubietako erraustegia abuztu amaieran edo iraila hasieran jarriko zutela martxan iragarri zuten proiektuaren bultzatzaileek joan den uztailen. Orain



Abuztuaren 10ean jaso ahal izan genuen irudia errepikatu da berriz. Errausketaren zero gunea kea zeriola zegoen irailaren 7an.

ZUBIETA LANTZEN

“Hilabete honetan jada 12 trailer omen dira egunero erreusa Zubietan gainera garraiatzen dutenak. Bakoitzak 22 tona erreus uzten omen ditu Zubietan gainean”

ordea data berri bat eman du ezagutzera hedabide batek asteburuan; urria erdialdea.

Urria erdialdera jar dezakete martxan, jada probaldi fasean duten errauste planta eta abendurako azpiegitura osoa lanean hasia egongo omen da.

Eraikia dute jada. Antza, egunotan teknikariak azpiegitura osoa behar bezala funtzionatzeko ari dela frogatzen dabilta. Guztia prestatzen dabilta Zubietan gainean, zaborra erretzen hasteko. Apirilaz geroztik 12.400 tona erreus

bildu omen dute tratamendu mekaniko-biologikoko plantan. Horiematik 815 tona (%7a) berreskuratu ahal izan omen dituzte birziklatzeko. Uztaila amaieran jada erreusez betetako zortzi kamioi husten zebiltzan bertan. Hasi berri dugun hilabete honetan jada 12 trailer omen dira egunero erreusa Zubietan gainera garraiatzen dutenak. Bakoitzak 22 tona erreus uzten omen ditu Zubietan gainean.

Errausketaren zero gunea, kea dariola berriz

Abuztuaren 10ean jaso ahal izan genuen irudia errepikatu da berriz. Errausketaren zero gunea kea dariola zegoen irailaren 7an, Xingola Usurbil Twitter erabiltzaileak txio bidez zabaldu zuenez.

Probaldi fasean dute, las-ter martxan jarri nahi duten erraustegia.

Errausketaren aurkako giza kate luzeak Kontxa inguratu du

Errausketaren aurkako eta osasunaren aldeko mezua, Kontxako hondartzaraino eramane zuten ehunka lagunek osaturiko giza kateak, Donostiako estropaden bigarren eta azken jardunaldi egunean. Mobilizazioak hondartza inguratu zuen. Txoko ezberdinetako gipuzkoarrak batu zituen ekimenean, Zubietan edota Usurbilgo ordezkariarik ez zen falta izan noski.

Hamaseigarren giza katea

izan zen antolatzaile betarano batek aipatu zigunez, berezia aurtengoa. “Donostiako erraustegia eraikita dago eta edozein egunetan hasiko da zaborra erretzen”. Halere, deitzaileek ohartarazi dutenez, “honek ez du aldatuko gure borroka eta aldarrikapena berbera izango da: erraustegia gelditzea”. Erronka honen bueltan bildu zituen Kontxako giza katean ehunka herritar eta eragile anitz; Errausketa-

ren Aurkako Mugimendua, Alternatiba, EHBildu, Equo, Sortu, Eguzki, Ekologistak Martxan, Greenpeace, CCOO, EHNE, LAB... Argi utzi zuten. “Ez dugu etsiko: planeta bizigarri baten alde gaude eta horregatik ezin dugu onartu erraustegia”.

Isurketak

Besteak beste, klima aldaketa areagotzen Gipuzkoan gehien lagunduko duen enpresetako

izango baita aipatu eragileon esanetan. “Erraustegian erretako zabor kilo bakoitzeko gutxi gorabehera kilo bat CO2 sortuko da eta erraustegiak urtean isuriko dituen nitrogeno oxido kopurua 150.000 turismo dieselek, bakoitzak 10.000 km eginez aireraturikoaren parekoa izango da”, ohartarazten dute. Etorkizun jasagarri baten alde bitartekoak berehala jartzen hastea galdegiten diete agintariei.

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA

EGUNEKO MENUA · KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK · TOSTAK
MENU BEREZIAK

943 36 91 39

www.artzabaljatetxea.eus

Kima
MASAJE LEKUA

· KIROLO MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behe LASARTE-ORIA 943 36 61 97



Irailaren 7an, errausketaren aurkako eta osasunaren aldeko mezua Kontxako hondartzaraino eraman zuten ehunka lagunek.

Baba beltz txikiaren kofradiak sortzailea, Felix Sarasola omendu du

Baba beltz txikia gorai-patzen duen kofradiak sortzailea, iazko abenduan zendu eta martxoan herri omenaldi hunkigarria jaso zuen Felix Sarasola omendu zuen, abuztuaren 29an Saizar sagardotegian ospatu zuten bazkarian. Berari jarritako bertsoak abestu zituzten. Sarasola bera aipatzen duen ereserkia ere bai. Horrekin batera, urteroko erritua bete zuen; baba beltz txikidun bazkaria dastatu, bazkalostean kantatu eta gero, kofradekide berri batek zin egin zuen eta 2020ko edizioa iraigarri zuten.

FELIX SARASOLA
1946-2018
Ibili haiz itsasoz
ibili haiz mendiz
hire bihotz handiak
egin al du gaindiz?
Nahiz ez haugun gehiago
ikusiko begiz
denon oroimenean
biziko haiz Felix.



Baba Beltz Txikiaren kofradiak Felix Sarasola omendu zuen. Iazko abenduan zendu zen eta martxoan herri omenaldi hunkigarria jaso zuen sukaldariak. Kofradiako sortzaileetakoa ere izan zen Sarasola.

BILKURA

**“Abuztuaren 29an
Saizar sagardotegian
batu ziren”**

BABA BELTX TXIKIA
Gora baba beltz txikia,
andazpetarron gloria, bai!
Txiki izanarren,
nor da gaur hemen
zu bezain handia?

Gora ditzagun zure dohainak:
koloria, armonia eta /
“tirrit eta tarrat”
zuk sortzen duzun sinfonia.
A zer nolako jakia
babatxo beltz txikia!
Platerkada bat, platerkada bi
bata bestearen atzetik,
atera hitzak, atera, Felix,
atera babak eltzetik!

Baba Beltz Txikiaren kofradia.

Artisautza azokan izena emateko epea zabalik da

Ohiturari jarraituz, azaroaren 1ean egingo da Usurbilgo artisautza azoka. Aitzaga elkarteak herriko artisauei gonbitea luzatu nahi die, bertan parte har dezaten.

Azken eguna: irailak 30

Izena emateko azken eguna irailaren 30a izango da eta animatzen direnek artisautzaazoka@gmail.com postara idatzi behar dute “eskaria eginez eta zer lantzen duten esanaz”, Aitzagatik aditzera eman dutenez.



Azaroaren 1ean egingo da azoka, baina artisauek aurretik eman behar dute izena.

Kantu afariarekin gorazarre masustari

12 urteren ostean, Masustaren Kofradiak zaleturik ez du falta eta urtero biltzeko tradizioak bizi asko segitzen du. 2007az geroztik hutsik egiten ez duen hitzordua ospatu zen irailaren 6an Artzabalen, aipatu kofradiaren jaia. Omenburiko elikagaia, masustaren ereserkia abestuz hasi zituzten ospakizunak. Masustadun otordu gozoa dastatu zuten gero, afalostean segi zuten kantu saioan, masustaren propietateak plazaratzearekin batera. Kofradekide berriak zin egin eta 2020koa iragarri zuten. Kofradiara kide berriak biltzeko sokak ez du etenik.



Irailaren 6an batu zen Masusta Kofradia. Kide berriak biltzeko sokak ez du etenik.

“Irribarre batekin amaitzea gustatzen

Baxurde Krosa gainean dugu, eta hori ezin hobeto dakite Maitane eta Eli Eizagirrek. Azken urteetan parte hartu dute lasterketan eta elkarrekin helmugara iristen ikusi ditugu. Irabaztea ez da izan inoiz bi ahizpen lehenetasuna, baina gustura aritzen dira elkarrekin. Haiekin izan da NOAA! esperientziak bildu nahian.

NOAA! Baxurde Krosean ahizparekin parte hartzearena nondik sortu zitzaizuen?

Maitane Eizagirre: 2011n hasi zen korrikarako kontu hau. Lilatoian izen ematearena aipatu zidan Elik. Korrikarena beti buruan izan dudana zerbait izan da, egia esan. Ostiraletan entrenatzen hasi ginen, Zubietako buelta ematen: 5km. Pixkanaka hobetuz joan ginen eta 10km-ko Baxurde Krosearekin animatu ginen. Oso lehiakorrak ez gara, baina azkena iristea ez zaigu gustatzen eta herrian, oraindik eta gutxiago. Irribarre batekin amaitzea gustatzen zaigu, sufritzearen kontua ez doa gurekin. Zure ahizparekin iristeak ematen duen poza.

Eli Eizagirre: Korrika egitea asko gustatu izan zait beti, baina inoiz serioegi hartu gabe neukan, hasi bai baina, segituan uzten nuen. Probetan izen emateak sortu zuen entrenatzeko behar hori, nahiz eta kilometro asko ez izan, beti entrenatu beharra dago. Bestela, erraz uzten den zerbait da korrika egitearena. Gerora bururatu zitzaigun Behobian parte hartzearena. Urrutiko kontu bezala ikusten genuen, erronka modura. Urtebete lehenago hasi ginen jarraikortasunez entrenatzen, astean behin edo bitan ateratzen ginen korrika egitera. Bakoitza bere aldetik hasieran, eta eguna



Baxurde Krosean arituko dira igande honetan. “Oso lehiakorrak ez gara baina azkena iristea ez zaigu gustatzen eta, herrian, oraindik eta gutxiago”.

ELI EIZAGIRRE

“Herrian bi lasterketetan hartu dugu parte: Baxurde Krosean eta Uxue Trailen. Herrian izatea oso berezia da”

hurbildu ahala biak batera. Herrian bi lasterketetan hartu dugu parte: Baxurde Krosean eta Uxue Trailen. Herrian izatea oso berezia da.

Aurtengoan ere parte hartuko duzue?

M. E: Oraindik ez dugu izena eman, baina asmoa badugu. Behobiara berriz ere apuntatu gara. Bigarren urtea izango dugu hau, aurreko urtean hain pozik amaitu genuen, errepikatzea ez dugu bi aldiz pentsatu. Eguraldi ona tokatu zitzaigun eta presiorik gabe korrika egiteak lasaitasun handia ematen du. 20 kilometro egin ostean errepikatze gogoa izatea ederra da.

E. E: Ni aspaldian entrenamendu gutxi eginda nabil, uda pa-

satu berri eta badakizu. Jarri beharko dugu pixka bat.

Korrikarako zaletasuna berria da, edo betidanik izan duzue grina?

M. E: Sekula ez dugu kirolik egin. Korrika 2011n hasi ginen, lilatoia prestatzeko hilabete lehenago entrenatzen hasita, baina urtearen gainontzekoan ezer ere ez. Gure hirugarren ahizpa da etxeko kirolaria, atletismoan ibilia da eta orain ere lasterketak eta egiten ditu, baina guk ezer ez.

E. E: Igeriketa izango da jarraituen egin izan dugun kirola, baina gehiegi ere ez. Esaten den bezala 40 urtera gertatzen hasten garenean proposamen berriak bururatzen zaizkigu. Helburu batzuk jartzen dituzunean eta horiek lortzeko lan egiten hastean kirolari loitzen hasten zara. Ni mendian ere ibiltzen naiz eta 3.000ko bat egitea edo Orio-Zarautz trabesia egin izana lorpenak dira. Orain agian ez nituzke egingo, baina beste erronka batzuetarako bidea zabaltzen dute.

Baxurde Krosa, izen ematea zabalik da

- Irailak 15 igandea.
- Ordua: 10:30.
- Tokia: Usurbilgo frontoia, irteera eta helmuga.

Zehaztasunak:

- 10:30 Helduen lasterketa frontoitik: 10,75 kilometroko ibilbidea.
- 12:00 Haurren lasterketa ez lehiakorra: benjaminen (2010-11 urteetan jaioetako 8-9 urtekoak) eta alebinen (2008-09 urteetan jaioetako 10-11 urtekoak) 600 metroko ibilbidea.
- 12:10 Haurren lasterketa ez lehiakorra: infantilen (2006-07 urte arteetan jaioetako 12-13 urtekoen) eta kadeteen (2004-05 urte arteetan jaioetako 14-15 urtekoen) ibilbidea (1.000 metro).
- Oharra: prebenjaminen 200 metroko lasterketa.
- Izen ematea: irailaren 14ko 16:00ak arte rockthesport.com atarian edo Oiar-do Kiroldegian eskuragarri izango diren inprimakiak beteta.

Lasterketarako oharrak:

- 9:00etatik aurrera, dortsal eta txip banaketa frontoian.
- Kontsigna: arropa uzteko lekua lasterketaren irteeratik gertu, frontoian.
- Zerbitzuak/sariak: parte hartzaile guztientzat aseguru, probaren erdian ur-hornidura, froga amaieran hamaiketako, dutxa zerbitzua Kiroldegian bertan, lehen hiru gizon-emakumezkoentzat saria, parte hartzaile guztientzat oparia eta beste hainbat opariren zozketa.

Informazio gehiago:
rockthesport.com

zaigu, sufritzearena ez doa gurekin"

NOAUA! Nolako da ahizparekin erronka horiek hartu eta betetzea?

Maitane Eizagirre: Lagun batekin edo ahizpa batekin lasterketak egitea ez da berdina, konfidantzak garrantzia handia du. Ahizpen arteko harremana beti da berezia. Guk beti oso harreman ona izan dugu. Lasai lasai esaten diot nekatu naizela eta ezin dudala gehiago, edo isiltzeko. Ni isildu ere ez naiz egiten. Kontua da astean zehar ez garela ikusten, lana dela eta umeak direla ez daukagu elkarrekin egoteko denborarik. Orduan, korrika egiteko geratzen garenean egunean jartzeko aprobetxatzen dugu. Kafe bat hartzeko geratu beharrean korrika egiteko geratzen gara gu.

E. E: Isilik korrika egitea beste entrenamendu bat da. Galdetu ere ez diogu egiten elkarri: Isilduko zara? Ez, ez. Guk zuzenean ixo! esaten diogu elkarri. Isiltasuna ere deseroso egiten da askotan, baina isilik ibiltzen ere ohitu egin behar dugu. Oraintxe bertan denbora aldetik egin dezakedan kirol bakarrenetakoa da korrika egitea.

Kirola zuen bizitzaren parte bihurtu da?

M. E: Nire bizi filosofiarenekin parte da kirola egitea. Jan eta lo egiten dudana bezala, kirola ere egiten dut. Kontua da laster-



"Batera egiten ditugu Usurbilgo Baxurde Krosa eta Behobia-Donostia. Lilatoia ere egin izan dugu elkarrekin".

MAITANE EIZAGIRRE

"Korrika egiteko geratzen garenean egunean jartzeko aprobetxatzen dugu. Kafe bat hartzeko geratu beharrean korrika egiteko geratzen gara gu"

ketetan ez naizela apuntatzen Eli bezain beste; urduri jartzen naiz.

E. E: Niri berriz lasterketek motibazio bat ematen didate, bestela errazago utziko nuke entrenatzea. Urtean zehar 10 kilometroko lasterketa batzuk egiten ditut. Donostian antolatzen dituztenak gustatzen zaizkit gehien, milaka pertsonen hartzen dute parte eta taldean

joanda hobeto pasatzen dut. Nabarmendu gabe, bat gehiago sentitzen naiz. Urduri jartzen naiz ni ere, baina adrenalina puntu batekin. Lasterketa horietan izena emango ez banu lehenago aspertuko nintzateke Zubietako buelta egiten, bestelako helburu edo motibaziorik gabe.

M. E: Batera egiten ditugu Usurbilgo Baxurde Krosa eta Behobia. Lilatoia ere egin izan dugu elkarrekin, baina azken aldian bi horiek izaten dira batera egiten ditugunak.

Nork bultzatu zuen bestea lehen lasterketa horietan izena ematera?

E. E: Ni izan nintzen. Nire senarrak Behobia-Donostia as-

kotan egin izan du eta zentzu horretan nik oso urrun ikusten nuen erronka bat zen. 10 kilometroko lasterketa bat egitea nire helburu nagusia zen, eta behin Baxurde Krosa eginda pentsatu nuen 20kora animatzea. Orduan Maitaneri esan nion nola Behobiara apuntatu nintzen.

M. E: Nik ere ordurako banuen 20koren bat egitea buruan, baina norbait behar nuen nirekin batera etortzeko. Konfiantzazko norbait esateko ezin dut gehiago edo egin dugu edo dena delakoa. Izena eman zuela esan zidanean, mugikorra hartu eta nik ere izena eman nuen. Bultzada bat behar izaten dut horrelakoetarako.

"Behobia-Donostian ere eman dugu izena"

NOAUA! Zeintzuk dira aurtengo erronkak?

Eli Eizagirre: Behobian izena eman dugu eta ni horrek bultzatzen nau beste 10eko batzuetan ere apuntatzera. Asmoa badut beste lasterketa batzuetan ere izena emateko, baina ez dakit Behobia hau

azkena izango ez ote den. Nire gorputzak 10 kilometroko lasterketetan oso ongi funtzionatzen du, hortik gora ez naiz horren eroso sentitzen. Behobia festa bat da, baina badu presio puntu bat ere. Behobia behintzat aurrean egingo dugu eta hortik aurrera ikusi-

ko dugu. Gustatuko litzaidake beste kirolen bat ere egitea, igeriketa adibidez, baina ez daukat denborarik. Korrika ordubetearen egiteko moduko zerbait da eta horrela mantenduta momentuz ederki.

Maitane Eizagirre: Nik ere egingo dut Behobia Elik egin nahi

badu, eta bestela ez dut egingo. Bestela ere kirola egingo dudanez, kirol munduan mantenduko naiz. Praktiko da korrika egitea, ez du tresneria beharrik eta eguraldi ona zein txarrarekin egin daiteke. Behin amaituta ongien uzten nauen kirola da korrika egitea.

Santueneko Jai Batzordea: “Ostiraleko batukada Usurbilgo Batukada Feministak eskainiko du”

Irailen bete-betean sartuta gaude eta astebete baino ez da falta Santueneko jaietarako. Ostiraletik igandera jai egiteko aukera izango da auzoan. Programaren gaineko xehetasunak eta jai batzordearen nondik norakoak ezagutzeko Jon Osa eta Leire Furundarena jaien antolatzaileekin bildu da NOAUA!.

NOAUA! Joan den urteko egitarauari erreparatuta aldaketa nabarmenik ez da antzematen. Zein ekitaldi izan ohi dira jendetsuenak?

Jon Osa: Nik horrelakoetan beti esaten dut Santuenean gehien gustatzen zaiona jendeari jatea dela, hala izango da beste auzo askotan ere, pentsatzen dut. Askotan sardin janean, pipeurretan eta igande goizetan egiten dugun txorizo banaketan jende asko animatzen da, jan eta txoznan zerbait hartzera.

Natali herriko taldea ere ari-tuko da jaietan. Lehenak izango zarete auzoko jaietan jartzen.

Leire Furundarena: Hasieran pentsatu genuen Natali gaue-tako kontzertuetan sartzea ostiralean, baina beste kontzertu bat hitzartuta zeukaten lehenagotik. Igande arratsaldeko tarte horretan joan zen urtean



Leire Furundarenak eta Jon Osak jaien inguruko azalpenak eskaini dizkigute.

JON OSA

“Igande arratsaldetako izaten da beti desberdin egiten saiatzen garena. Aurten Natali aukeratu dugu”

Ttipika dantza taldea aritzen eta aurten herriko jendea Santuenera hurbiltzeko ideia polita iruditu zitzaigun Natali hautatzea. Natali eta Ixak, biak arituko dira akustikoan.

J. O: Igande arratsaldetako izaten da beti desberdin egiten saiatzen garena. Aurten Natali aukeratu dugu.

Herri afaria eta bazkaria ere izango dira aurten.

J. O: Aurten larunbatekoa izango da berrikuntzarik nabarmena. Ez dugu oraindik ezer jarri programan, baina ideia da larunbatean afaltzeko lumagorri oilaskoak jartzea. Bertan parrilan erreko ditugu eta bertan egongo dira jendeak afaltzeko eskuragarri. Lumagorri oilaskoak eta entsalada ere izango ditugu Arrospideko letxugarekin eta gero, postrea ere izango dugu: flana.

Batzutan ez dugu jakiten jendeak zer nahiago duen, afaria egiten genuen lehen, gero ikusi genuen aldaketa batzuk

egin behar genituela eta larunbateko musikarien afaria egiten hasi ginen.

L. F: Ostiralean herri afaria egingo dugu.

Jendea animatzen da bazkari eta afari horietara?

L. F: Zaila da. Ostiraleko afarira gazteak animatu nahi ditugu ondoren parrandan gera daitezen, baina zaila izaten da jendea afarira animatzea.

J. O: Lehen ostiraletan jende gehiago animatzen zen, orain batez ere musikariekin egiten dugun afaria izaten da. Igan-dean jende gehiago animatzen da normalean.

“Santueneko mus txapelketak fama handia du”

NOAUA! Gaueko parrandetan zenbait auzotan urtez urteko beherakada nabari dute. Zuen kasuan ere horrela da?

Jon Osa: Bai, nik uste urteak pasatu ahala pixkanaka auzoetako festak aldatu egin dira. Lehen gaueetan auzo gehienetan izugarrizko parranda egoten zen eta orain bertakoak

izaten dira gehiengoak. Ez da lehen bezainbeste jende ibiltzen. Egia da larunbatetan dj-ekin nahiko jende mugitzen dela, baina nik uste giroa denborarekin eguneko programa horretara atxikitu dela. Musean jende asko izaten da adibidez, eta gainontzeko egunetan ere arratsaldea nahiko mugitua

izan ohi da.

Leire Furundarena: Auzoetako jaietan orokorrean musean jende asko izaten da, baina Santuenean 30-40 bikote ingurura ere hurbildu izan gara. Fama handia du Santueneko mus txapelketak. Oilaskoen berrikuntzarekin ere

hori lortu nahi dugu, jendeak arra-tsalde eder bat izatea eta gero afarian ere geratzea. Ostiraleko afari alternatiboarekin ere hori lortu nahi dugu, arratsalde potentea antolatuta jendea afaritara animatzea eta gaueko parrandan geratzea. Ea horrela jendea hurbiltzen asmatzen dugun.

“Frontoiak asko salbatu gaitu”

NOAUA! Zuen kasuan eguraldia izaten da kezka iturri.


J.O: Bai, kontziente gara irai-lean izaten direla festak eta zoritxarrez askotan euria izaten dugula lagun. Orain behintzat frontoi estalia daukagu eta eguraldi txarra denean barruan sartzeko aukera izaten dugu. Orain arte asmatu dugu euriarekin jokatzeko eta aurten ere hala tokatzen bada egingo dugu zerbait. Izan dira urte txarrak, euri zaparrada handiak tokatu zaizkigunak eta ondorioz, oso jende gutxi hurbildu dena parrandara. Egunean zehar hala ere frontoiak asko salbatu gaitu.

L. F: Aurten zortez ibiliko gara baita ere, asteburu horretan ez delako beste ekitaldirik tokatuko. Baxurde Krosarekin tokatzen zaigu askotan edo Usurbil Cupeko partidak eta Donostiko Kutxa Kultur Festivala. Hala ere, euriaren kontra Zarautzen aurten pontxoak jarri dituzte salgai eta guk ere agian halakoren bat egin beharko dugu.

Auzoetako jai batzorde batzuetan kezu dira geroz eta jende gutxiago dagoela eta. Atxegalderen kasuan, erreleboa eskatu dute. Zein da Santueneko Jai Batzordearen egoera?

L. F: Gure egoera ere antzekoa da, beti berdinak gaude. Jaie-tako karga gehiena betikoek eramaten dugu. Aurreko urtean egin nuen eta zergatik aurten ez? Filosofia hori eramaten dugu, baina azkenean nazkatu egiten zara. Adin bakoitzetik pertsona bat edo bi gaude eta denak adin antzekoak ditugu.

J.O: Kide gehienok hamar bat urte edo gehiago daramatzagu jai batzordean. Errelebo falta somatzen dugu nolabait. Lehen gazteagoak ginen eta pixkanaka gazteagoak ere hurbiltzea lortu genuen, baina errelebo falta nabari da. Azken urteetan txoznan laguntzera animatu da jendea, baina an-



“Orain behintzat frontoi estalia daukagu eta eguraldi txarra denean barruan sartzeko aukera izaten dugu”.

JAI BATZORDEA

“Laguntza gehixeago eskertuko genuke, batez ere jaiak antolatzeke garaian”

tolaketan betikoak gaude. Nik uste auzo gehienetan ari dela berdina gertatzen. Gainera, denok garai berdintsuan hasi ginen jaiak antolatzen eta jai batzordeetako jendeak antzeko adina dugu. Gu saiatu izan gara auzoko jendea animatzen. Laguntza gehixeago eskertuko genuke, batez ere jaiak antolatzeke garaian.

Zenbat kide zarete?

J.O: Taldean 20 gaude, baina nik uste gutxiago garela antolaketa lan horretan, 12 bat ibiliko garela. Txoznan gehixeago izaten gara. Aipatutako horiek guztiek gutxienez 5-6 urte daramatzagu jai batzordean. Lehen sartu ginenon 14. urtea edo izan daiteke aurtengoa. Gazteagoak ginenean eta gure lan bakarra ikasketak zirenean denbora gehiago hartzen genuen jaiak prestatzeko, baina orain gehienok lanean gaude eta horrek zaildu egiten du lana.

L. F: Geroz eta ardura gehiago ditugu ikuspuntu pertsonalean eta askotan ezin izaten dugu denera iritsi. Errelebo horrek pixkanakoa izan beharra dauka ez izateko golpetik denak na-

gusiak eta gero denak gazteak. Prozesu hori pixkanaka egin beharra dago. Ederra litzakete gazteagoak ere animatzea eta errelebo lan hori egiten hastea.

Noiz hasten zarete jaiak antolatzen?

L. F: Maiatza edo ekaina alde- ra hasten gara lehen bilerak egiten, behin Sagardo Eguna pasata.

J.O: Beti animatu izan dugu jendea parte hartzera antolatzen edo proposamenak egiten edo. Jaiak antolatzen ditugu neurri handi batean soziedadegatik, asko laguntzen gaituzte. Haiek gabe ezinezkoa izango litzateke jaiak antolatzea. Lehen haiek antolatzen zuten dena eta guk laguntzen genien eta, orain alderantziz da. Ekitaldi pila bat antolatzen dituzte beraiek: sardin jana, piper dastaketa, igandeko bazkaria, toka... Falta ezin duten ekitaldi asko haiei esker antolatzen ditugu.

L. F: Guk zentzu horretan material fisikoa lortzen dugu eta haiek ekitaldiak prestatzen eta janaria banatzen ibiltzen dira. Beti prest daude laguntzeko. Larunbateko jokoak eta Umeen Egunari lotutako hainbat kontu haiek lotzen dituzte eta guraso talde batek ere bai. Haiek ere, Umeen Egunean batez ere, asko laguntzen digute. Auzolanean ateratzen ditugu aurrera jaiak.

Hiru eguneko egitarau oparoa

Irailak 20, ostirala

- 17:00 Txupinazoa eta txokolatada Tragoxka tabernaren eskutik.
- Ondoren, globo gerra.
- 18:30 Buruhandiak.
- 18:30 Usurbilgo Batukada Feminista.
- 19:00 Sardina jana.
- 21:00 Herri afaria.
- 23:30 Kontzertuak: Herenegun, Kilimak, Larrian Gozo.



Larrian Gozo taldea ostiral gauz arituko da Santuenean.

Irailak 21, larunbata:

Umeen Eguna

- 11:00 Umeen jolasak eta pintura lehiaketa.
- 13:00 Buruhandiak.
- 14:00 Haur bazkaria (norberak bere bazkaria ekarri, eta edariak eta postrea bertan banatuko dira).
- 16:00 Mus txapelketa (izen ematea 15:30-16:00).
- 16:00 Haurrentzako puzgarriak.
- 17:30 Txokolatada Gure Elkartea jubilatutako elkartean.
- 19:00 Buruhandiak.
- 20:30 Musikarien afaria.
- 00:00 Dj Gaua: Dusaint, Inkilt, Xiarroman, Anwoltt.

Irailak 22, igandea

- 11:00 Toka txapelketa.
- 12:00 Hamaiketako txosnan.
- 14:00 Herri bazkaria.
- 17:00 Natali akustikoa.
- Ondoren, buruhandiak.
- 19:30 Piper dastaketa.
- 21:00 Festen amaierako traka.

Oharra: Otorduetarako txartelak Santueneko jubilatuen tabernan eta Ibai Ondo elkartean; Usurbilgo Aitzagan eta Artzabalen.

Aginagako erriberako sagastietara, Lujanbio eta Egaña bertsolariekin

Iaz Zubietan egin bezala, aurten eskenatokiz aldatu eta Aginagako erriberetako sagastietan barrena ibilalditxoa antolatu du Sagardoaren Unibertsitateak irailaren 22rako (igandea).

Goizeko 11:00etan finkatu dute biltzeko hitzordua Aginagako plazan. Handik aipatu moduan oinez, errio ondoko sagastietara, ohorezko bi bidelagunekin; ibilaldia bertsoz girotuko baitute Maialen Lujanbiok eta Andoni Egañak.

Argibideak, Jakoba Errekondoren eskutik

Txangoak helburu argi bat du; “Sagardoaren Paisaia Kulturala ezagutzea”. Gai honi buruzko



Irailaren 22an igandea, eguerdiko 11:00etan abiatuko dira Aginagako plazatik. Goiza amaitzeko, mokadutxoa izango da Aginaga sagardotegian.

argibideak eskainiko ditu ibilaldian zehar, Jakoba Errekondoren usurbildar paisajistak. Goiza amaitzeko, mokadutxoa izango da Aginaga sagardotegian.

Gipuzkoako Bertsolari

Txapelketako sarrerak salgai
Asteburu honetan hasiko da txapelketa. Sarrerak salgai dituzue jada bertsosarrerak.eus atarian.

Helduen Hezkuntza Iraunkorrean matrikulatzeko azken egunak

Eremu ezberdinetako jakintza arloetan sakondu, bigarren hezkuntzako graduatua atera; unibertsitaterako, goi nahiz erdi mailako Lanbide Heziketa zikloetarako sarbide probak prestatu... Guz-tia lagun arte giro ederrean, irteera eta ospakizun bereziak eginez urtean zehar. 18 urtetik gorakoei zuzenduriko Helduen Hezkuntza Iraunkorrak asko du eskaintzeko Agerialden.

Matrikulatzeko epea:

Irailaren 13a.

Informazio gehiago:

943 37 64 43

info@epalasarte.eus
epalasarte.eus

Azken aldian gurean grabaturiko filmak, nazioarteko biran

Txintxua films ekoizte-txarearen “Oreina” eta “Dantza” lanek Europa edota Hego Ameriketara jauzi egin dute uda honetan. Urte hasieran Txokoaldeko Torreara irakinean grabatzen aritu ziren “Ventajas de viajar en tren” filma udazken honetan estreinatuko dute Sitgeseko zine jaialdian eta zinemetan.

Rikardo Arregiren inguruko filma

Abuztuan Usurbilen grabaturiko laburmetraia, atzerapenik ez bada, azaroan ikusteko aukera izango da. Maluta Filmsek ekoiztutako lanak Rikardo Arregi nor izan zen ezagutaraziko du bere heriotzaren 50. urtemugan.

“Dantza” Ipar Euskal Herrian

“Azkenean Dantza Euskal Herri osoan ikusteko aukera izango dugu”, zioen egunotan



Aritz Morenoren ‘Ventajas de viajar en tren’ filma Txokoaldeko Torreara irakinean grabatzen aritu ziren urte hasieran.

Txintxua Filmsek sare sozialen bidez. Iazko abenduan estreinatutako filma asteotan Ipar Euskal Herrian ikusgai dute. Nazioartean Txilen ere proiektatu dute uda honetan. Gogoan izan, besteak beste, Usurbilgo Orbeldi Dantza Taldeak parte hartu zuen Telmo Esnalek

zuzendutako film honetan.

“Oreina” Txilen eta Bulgarian

2017ko udazkenean Aginagan eta Usurbilen grabatu eta iazko Donostiako Zinemaldian estreinatutako filmak nazioartera jauzi egin du azken aldian. “Dantza” eta “Amama”-rekin

batera, itsasoz bestalde, Txileko Viña del Marren ospaturiko euskal zine zikloaren baitan proiektatu zuten Koldo Almandozek zuzendutako ikus-entzunezkoa uztailan zehar. Abuztuan Bulgariako Nazioarteko Zine Jaialdian ere eskaini zuten. Hilabete hasieran Uruguain.

“Ventajas de viajar en tren”

Aritz Moreno (Donostia, 1980) zuzendariaren lehen luzemetraia (izen bereko Antonio Orejudoren liburuan oinarriturikoa) Txokoaldeko Torreara irakinean grabatzen aritu ziren urte hasieran. Urriko lehen hamabostaldiko Sitgeseko zine jaialdiko sail ofizialean lehiatuko da, besteren artean, Luis Tosar, Pilar Castro, Belén Cuesta edota Quim Gutiérrez aktoreak bildu dituen filma. Azaroaren 8an estreinatuko dute zinemetan.

Orbeldi Dantza Taldean izena emateko garaia da

2019-20 ikasturtea dantza batean bizitzeko egitaraua josi du Orbeldi D.T.-k. Ikastaro eskaintza plazaratu du. Segidan dituzue xehetasunak. Dantza taldetik ohartarazi dutenez, “ikastaro guztien prezioaren barruan 15 euro balio duen aseguruia sartzen da. Ikastaro bat baino gehiagotan izena eman nahi izanez gero aseguruia behin ordainduta nahikoa izango da”.

Izen emateko eta informazio gehiagorako:

orbeldi.udt@gmail.com

Irailak 12-13, 17:00-19:30 artean
Oiarde Kiroldegiko dantza gelan.

Haurrentzako eskaintza:

■ LH 1-2, astelehenetan: 16:45-17:45 edo 17:45-18:45.

■ LH 3-4, ostiraletan: 17:00-



Irailaren 12an eta 13an eman behar da izena.

18:00 edo 18:00-19:00.

■ LH 5-6, asteazkenetan: 16:45-17:45 edo 17:45-18:45.

■ DBH, ordua apuntatzen diren artean erabakiko da.

Helduentzako eskaintza:

■ Irailak 30-ekainak 29: astelehenero 19:00-21:00 artean, oinarritzko euskal dantzak. “Euskal Herriko dantzen pausoak lantzeko ikastaroa”. 90 euro (familiakide bat baino gehiago izanez gero, 80 euro).

■ Urriak 1-abenduak 17: astea-

tero 19:00-20:00 artean, dantza hastapenak. “Pausoak hasiera hasieratik ikasteko aukera (jauziak, arin-arina, fandangoa...). Hiruhilabeteko ikastaroa”. 45 euro.

■ Urriak 1-ekainak 30: asteartero 19:00-20:30 artean, erromeri taldea. “Plazan jai giroan dantzatzaren diren dantzen ikastaroa”. 90 euro (familiakide bat baino gehiago izanez gero, 80 euro).

■ Urriak 2-maiatzak 27: asteazkenero 18:30-20:30 artean, dantza garaikidea. “Eneko Gil dantzariarekin garaikide estiloan sakontzeko ikastaroa”. 135 euro.

■ Urriak 3-ekainak 25: ostegunero 19:00-21:00 artean eta larunbatero 10:00-12:00 artean, euskal dantzen taldea. “Euskal dantzen teknika hobetzeko ikastaroa”. 90 euro (familiakide bat baino gehiago izanez gero, 80 euro).

Akatsak zuzentzen

Aurreko asteko NOAA!n, Akerra gaztetxeak uztailan zehar jasandako lapurretari buruzko artikulua plazaratu genuen. Albiste horretan uztailako informazioa baliatu genuen. Gerora jakin dugu afera bideratu nahian ahalegintzen ari dela Udala, eta harremanetan dela gaztetxeoekin, okupekin eta auzotarrekin. Ohar honen bidez jaso gera bedi.

Askaria Bihurri ludotekan

Uda agurtu eta bazkide guztiak elkarrekin ikasturtea gogotsu hasteko, “askari eder bat antolatu dugu Bihurri ludotekan”. Ostiral honetarako ipini dute hitzordua, irailak 13, arratsaldeko 17:00etan hasita. “Zatoz! Oparitxoak ere egongo dira”, ludotekako gurasoek aditzera eman dutenez.

Aldaketak bus taxi zerbitzuan

Oporretako etenaren ondoren, irailaren 2an itzuli zen Usurbil erdigunea, auzoekin eta landa eremuarekin lotzen duen udal zerbitzua. Orain arte 13:00ean eskaintzen zen zerbitzua, 13:30etatik aurrera eskainiko da. Honenbestez orduotan abiatuko da Kaxkotik bus taxia: 07:30, 10:30, 13:30, 15:30, 19:00.

Informazio gehiago: 630 643 596.

Giro ederra 1958ko kintoen bazkarian

1958an jaiotako herritarrek irailaren 7an batu ziren Antxeta jatetxean.

1952an jaiotakoen bazkaria

Aldizkari honetako hirugarren orrian ikusiko zenuten moduan, kinto deialdi ugari egin dira datozen asteetarako. Hementxe duzue jaso dugun azkena: 1952an jaiotakoak urriaren 26an larunbata Saizarren bilduko dira bazkaritarako. Izen emateko epea urriaren 19ra arte dago irekita: 620516715 (Javier).



1958an jaiotako herritarrek aurreko astean elkartu ziren.

www.noaua.eus

USURBILGO ATARIA

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

Patriotik
Jatetxea

· bazkariak EGUNERO

· afariak. ostegunetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361

Eguzki elkarteak 50 urte bete ditu

Inguru hurbila nola aldatu den lekuko zuzena dugu. Auzunea eta auzo ingurua eraldatzen ikusi du hamarkada hauetan, 50 urte bete berri dituen Munalurra 24ko Eguzki elkarteak. Maiatzean heldu zen mende erdia osatzera, baina elkarteak bazkideen batzarrak, larunbat honetan (irailak 14) urtemuga borobil hau ospatzea erabaki zuen, 1969an elkarte sortu zutenekin, hamarkadotan bazkide izan dituenekin eta jai egun honekin bat egin nahi duen herritar ororekin. “Elkarte honek omenaldi eder bat merezi baitu bazkide eta kudeatu duten guztiengatik”, adierazi dio NOAUA!ri bazkideen batzarreko kide Javi Sillerok.

Ate irekien jardunaldi modukoa antolatu dute hilaren 14rako, haurrentzako jolas, helduentzako txapelketa, musika eta bazkide zein bazkide lagunak bilduko dituen bazkari herrikoi baten bueltan. Taberna txiki bat ere egokituko dute. Txartelen salmentarekin bideratu duten otordurako izen ematea itxita dute jada. “Etor dadila jendea, bazkide eta fundatzaileei, batez ere elkarte honen sortzaileei esker ona adierazteko jaialdi honetara”, adierazi dio NOAUA!ri Sillerok. Auzoko elkarteak izan arren, herritar oro gonbidatu nahi dute ospakizunetara.

Bereziki, elkarteak sortu zutenak oroitu nahi dituzte larunbatean, esker ona adierazi. Haien seme-alabak edota seme-alaben seme-alabak dira elkartearen gidaritza eraman edo Eguzki kide direnak. “Adibidez nire aita igeltseroa zen, elkarte hau egiten lagundu zuen”, oroitzen du Antonio Guadix elkarteak kideak. Auzoa eraikitzearekin batera egokitu eta ireki zuten Eguzki ere. “Bereziki auzoko jendearekin egin zen, auzoko jendearengan



Elkarteko hainbat bazkiderekin batu gara eta larunbateko ekitaldiaren xehetasunak azaldu dizkigute.

JAVI SILLERO

“Etor dadila jendea, bazkide eta fundatzaileei, batez ere elkarte honen sortzaileei esker ona adierazteko jaialdi honetara”

pentsatuta”, Guadixek oroitu digunez.

Ateak kide berrientzat zabalik
125 kide ditu egun Eguzki elkarteak. Hazten segi dezake etorkizunean, azken urteotan elkarteak zuzendaritzak hartu dituen erabakiei esker. Bateik, lehen ez bezala, emakumezkoek bazkide izateko aukera dute egun Eguzki elkartearen. Eta baimendutako bazkide izan daitezke, bazkide diren 18-25 urte arteko seme-alabak. “Elkarteak erabiltzeko baimena dute; sukaldea astelehenetik ostegunera, kafe bat hartzeko aukera noiznahi”, Sillerok NOAUA!ri argitu dionez. Elkarteak erabiltzeko aukera dute, kuotarik ordaindu gabe baina ohiko bazkideek ez bezala, ez dute bozka eskubiderik. Ezin dute elkarteak erabakietan parte hartu.

Belaunaldi arteko transmisioa sustatzen dabilta Eguzkin, nahiz 1969az geroztik

errelebo hori naturalki ematen den orain arte. “Gure gurasoak fundatzaileak izan ziren. Haietako askoren seme-alabak bazkideak gara. Tradizio honi segida eman diogu”, adierazi dio NOAUA!ri Antonio Guadix bazkideak.

Auzolana erronka

50 urteak beteta, 100. urtemugara heltzeko bideaz galdetu diegu. Erronka argia. “Guztion ahaleginarekin elkarte hau aurrera atera nahian gabiltza”, adierazi du Guadixek. Emakumeen parte hartzea lagungarria egingo zaiela diote. Belaunaldi arteko erreleboa ere ematen joan dela urteotan. Bazkide kopuari eustea dute erronka; “ez diezaiotela bazkide izateari utzi eta urtez urte hala jarrai dezagula”, dio Sillerok.

Horretarako elkartearen sorrera ahalbidetu zuen balore bati eutsi beharra nabarmentzen du; auzolana. “Jendeak lan asko egin behar du honek aurrera egin dezan. Ezin da utzi. Zuzendaritza honek bat eginda egon behar du, bazkide berriak erakarri eta daudenak gustura egon daitezen”.

50. urtemuga festa

■ Irailak 14, larunbata.

■ 11:00 Helduentzako jokoak

izango dira (igela, toka...). Haurrentzako jolasak.

■ 14:30 Bazkari herrikoia elkartearen.

■ 16:00 Puzgarria haurrentzat. Musika egongo da. Taberna zerbitzua.

■ Antolatzailea: Eguzki Elkarteak.

Ikastaro eskaintza zabala kiroldegian

Oiardo Kiroldegiak plazartu du 2019-20 denboraldirako ikastaroen eskaintza. Helduentzako spinning, pilates, 3. adina, zumba, total training, jumpfit, bizkar osasuna, hipopresiboak, yoga-mindfulness, mantenu gimnasia, eskalada. Uretako jardueretan, ur entrenamendu gidatua, matropilates, aquagym, aquazumba, igeriketa (has-tapen, hobekuntza eta entrenamendu saioak). Haurrentzako zumba, eskalada, jumping iragarri dituzte ur jarduerak ezberdinekin batera. Irailaren 16tik 20ra ikastarook probatzeko doako saioetan parte hartzeko aukera eskainiko dute. Informazio gehiago: 943 37 24 98 / kirola@usurbil.eus

Opariz beteriko Baxurde Krosa

Eskezabal dator aurtengo igandean (irailak 15) ospatuko den hamabigarren edizioa. Lehen postuetan sailkatutako lasterkariak, nahiz parte hartzaileak orohar ez dira esku hutsik geratuko antolakuntzak iragarri dituen sari eta opariekin.

Parte hartzeagatik tokiko produktu, herriko sagardotegietako edari preziatundun sagardo botila bana jasoko dute 12. Baxurde Kroseko lasterkariak. Sariak jasoko dituzte, nola ez, helmugara azkarren heltzen diren lehen hiru emakumezko eta gizonezkoek. Eta adi, urtero moduan, proba amaieran, hainbat opari zozketatuko ditu Baxurde Txiki U.T.T.-k: Arrospide kutixi Otarra, Kentuenen bazkaria 2 lagunentzat, Patrin bazkaria 2 lagunentzat, Artzabalen bazkaria 2 lagunentzat, Laukoteko 2 tarta, Marijen erropa erosteko 50 euroko bi bale, Bruño etxe-ko marisko otarra, Aizpuruako maleta, kirolari profesionalek sinaturiko arropa.

Sariokin, izen ematera animatzen du Baxurde Txiki Usurbilgo Triatloi Taldeak.



Iaz, Iñaki Gerica Juan usurbildarra izan zen helmugara heltzen lehena.

IRTEERA, FRONTOIAN

Helduen lasterketa
10:30ean abiatuko da;
haur eta gazteena,
12:00etatik aurrera

12. Baxurde Krossa

- Eguna: irailak 15, igandea.
- Ordua: 10:30.
- Tokia: Usurbilgo frontoia, irteera eta helmuga.
- Izen ematea: irailaren 14ko 16:00ak arte kronoak.com atarian edo Oiardo Kiroldegian eskuragarri izango diren inprimakiak beteta.
- Lasterketa egunerako oharak:

-9:00etatik aurrera, dortsal eta txip banaketa frontoian.

-Kontsigna: arropa uzteko lekua lasterketaren irteeratik gertu, frontoian.

-Zerbitzuak/sariak: parte hartzaile guztientzat aseguru, probaren erdian ur-hornidura, froga amaieran hamaiketako, dutxa zerbitzua Kiroldegian bertan, lehen hiru gizon-emakumezkoentzat saria, parte hartzaile guztientzat oparia eta beste hainbat opariren zozketa.

■ Informazio gehiago: rockthesport.com

■ Antolatzailea: Baxurde Txiki U.T.T.

Endika Abril

Errebote

Txapelketaren

jardunaldi berria

Irailaren 8an ospatzekoa zen txapelketako lehen jardunaldia Zubietan, baina eguraldia tarteko bertan behera geratu zen Zubietan eta Baigorriko Zaharrer Segi taldeen arteko partida. Asteotan jokatu dute. Igande honetarako dago iragarria, 56. Endika Abril Errebote Txapelketako bigarren jardunaldia. Aldaketarik ez bada, 11:00ak aldera Zubietako errebote plazan lehiatuko dira zubietarrak eta Hazparne taldea. Guztira 8 talde ari dira parte hartzen txapelketa honetan. Irailaren 22ko asteburura arte luzatuko da itzuli bakarreko ligaxka, lehen fasea. Partidak Zubietan, Oiartzun eta Villabonako plazetan jokatuko dira.



Guztira 8 talde ari dira parte hartzen txapelketa honetan.

Kontxako Bandera, Alex Udaberentzat

Iaz bezala, zubietar batek irabazi du aurtengo Kontxako Bandera. Alex Udabe Pagolak eta Hondarribiak. Taldeak ateratako ondoko argazkian dituzue garaileak. Herritar gehiago ere baziren gainerako ontzietan. Donostiarra ontziarekin lehiatu zen Nagore Arruti. Bosgarren postuan sailkatu zen emakumezkoen txapelketan. Gizonezkoetan, Hondarribiaren atzetik, ia 7 segundura bigarren postuan sailkatu zen Orio eta Oriorekin lehiaturiko bi herritarrek; Josu Ostolaza eta Odei Arrizabalaga. Gogoan izan, Orioko neskek irabazi zuten emakumezkoen txapel-



Orioko neskek irabazi zuten emakumezkoetan (argazkia: Xingola). Mutiletan, Hondarribikoek.

keta. Xingola Usurbilek ateratako ondoko argazkian dituzue eskuratu berri zuten bandera astinduz, Kale Nagusitik igaro

ziren unea.

Gizonezkoen txapelketara itzulita, laugarren postuan amaitu zuen Kontxako Bandera

Donostiarrak eta Jon Agirrezabalak. Zazpigarrenean Ondarroak eta Iñaki Errastik. Zorionak guztioi!



ETXEBIZITZA

Salgai

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berritua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Ettxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Pisua salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalefakzioa. Igogailurik gabe. Dena berrituta. Tximinia jartzeko instalazioa ere berria. Fatxada ere bai. Tel. 695 705 905.

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitzak 78 m² eta garajeak 50m².

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrek doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrek bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Tel. 676 453 176.

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Alokairuan

Usurbil erdikaldean, 2 logelako pisu bat alokatzen dut. Tel. 685 720 124.

Etxebizitza baten bila gabiltza. Baserri bat zainduko genuke aukeran. Familia bat gara, bi seme ditugu eta euskaldunak gara. 630 335 561.

Usurbilgo Kale Nagusian etxea partekatuko lagun baten bila nabil. 26 urteko neska gazte bat naiz eta elkarbizitzeko pertsona zintzo eta arduratsua. Ekainetik aurrera sartzeko. Tel. 616 027 636

Etxebizitza alokairuan, Santuenean. Berritu berria, eguzkitsua, lasaia. Bi logela, dena kanpora begira. 663055659

Marradun garaje bat alokairuan. Bizkarre auzoan. Tel. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabiltza. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsuak eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabiltza, bikote bat gara, biak lanarekin, informea ditugu. 675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702 807.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxita. Prezioa negoziatzeko. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatz kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

34m²ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekatzkiki 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Telefonoa: 663 031 803

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Asteburuetarako zerbitzari bat behar dugu Barazarren. 943 36 33 58.

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CVinfo@quantum.eus helbidera.

Usurbilgo neska baten bila gabiltza orduka lan egiteko, Usurbilen. Tel. 609 403 081

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrak emateko. 608201745

Txiriboga tabernan asteburutarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainategi erretegi. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko ta-

berna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Finantza eta aseguruetakokudeatzailea behar da Buruntaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: Profesionaltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrak emateko prest dagoen jendearen zerrrenda eguneratzen ari da. Partikularrak emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gorputzaldiak@udarregi.eus

Zerbitzari eta sukaldari laguntzailea behar dira Aratz erretegi. info@restaurantearatz.com

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interno, egunez edo orduka. 631 864 292.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan lan egingo nuke. Interna, egunez edo orduka. Tel. 617 748 714.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Umeak arratsalde zaintzeko prest. Maria 672340330

Pertsona heldu edo dependienteak zaindu edota etxeko garbiketa lanak egiteko prest. Soziosanitario titulua dut eta esperientziaduna. 686 825 587.

Ordukako lan baten bila nabil arratsaldeetarako, garbiketa lanak, haur edo helduen zaintza lanak egiteko. Berehala hasteko prest. Esperientziaduna eta erre-



Zorionak Izaro!

Oso ondo pasa zure egunean! Zure familiaren partez!



Zorionak Elaia!

Irailaren 4ean, 7 urte bete zenituen, muxu potolo bat familia eta lagun partetik!

Heriotzak

Juan Gutiérrez Sánchez

86 urterekin hil zen irailaren 4an Usurbilen



ferentziekin. 688 77 41 80.

Pertsona helduen zaintza lanak egiteko lan bila nabil. Berehala lanean hasiko nintzake. Interno edo externo bezala. 603 595 656

Emakume arduratsua, garbiketa lanak eta haur zein helduak zaintzeko prest. 617 75 15 22

Emakume bat, interna edo externa bezala lanean aritzeko prest, baita orduka ere. Esperientziarekin. 693000147

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Garbiketa lanak egiteko prest. 11:00etatik - 17:00ak bitartean. Tel. 603 315 126

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Interna, externa edo orduka. Garbiketa, zahar edo haurren zaintza... Paperekin eta esperientziarekin. 618 350 804.

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Zaharrak, haurrek, etxeko lanak, interna, externa, orduka... Esperientziarekin. 688 777 464.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Interna moduan lan egingo nuke. Tel 602 069 147

Interna edo externa moduan lanean berehala hasteko prest. Neska jatorra, arduratsua eta langilea. 604166831.

Lan bila nabil. Garbiketan, pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka. Berehala lanean hasiko nintzateke. 632 140 789.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Interna, externa edo orduka lan egiteko. Berehala lanean hasiko nintzake. 637 106 649.

Lan bila dabilen mutil bat naiz, esperientzia ere erreferentziekin pertsona helduak zaintzen. Os-

pitaletan, paseatzeko eta pozik edukitzeko prest nago. Berehala lanean hasiko nintzake. Interno edo externo bezala. 603 595 656

Emakume arduratsua naiz, eta lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiten. Interna moduan. 663 488 438

Garbiketa lanetan edo pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. 617 064 054

Pertsona helduak edo umeak zain-tzen lan egingo lukeen neska bat naiz. Esperientziarekin. 663 443 736

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna edo externa bezala. Tel. 619 355 819

Pertsona helduak edo umeak zain-tzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. Tel. 633 101 867

Emakume euskaldun bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko. Astean 2 egunez, goizez edo arratsalde. Urtariletik aurrera. 671 547 567

Neska arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, umeak zaintzen edo garbiketan. 671277904

Mutil arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen. Interno, externo edo gauak eritxean egiteko. Erreferentziak eta esperientziarekin. Tel. 603 595 656

Lan bila nabil. Helduak zaintzen. Interno, externo edo orduka. 631 996 636.

Lan bila nabil. Paperak egunean. Helduak zaintzen. Interna, externa edo orduka. 631 856 814.

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Etxeko lanak egiten, umeak edo nagusiak zaintzen. Orduka, interna edo externa bezala. Segituan la-

nean hasiko nintzake. 637106649.

BESTELAKOAK

AEG markako 8 kiloko lehorgailua salgai. Oso gutxi erabilia. 616 273 785.

Ohe artikulatua salgai. 1'35 neurrikoa da eta berri berria dago. 650 027 123.

Udan frantseseko klaseak ematen ditut, etxetara joanda. Jokin. Tel. 600 766 068

Usurbilen bizi naiz eta Lehen Hezkuntzako oposaketak prestatzeko talde bat osatu nahiko nuke ahalik eta azkarren. Klase partikularrak jasoko nituzke 2017. urtean atera zuen batekin, orduko prezioa adostuz. Ima. 688681557

Diamante, madarines eta isabelito japonese arrazako txoritxoak salgai. 659 185 107

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. 943 429 682 / 637 293 471

3 metroko toldo marroia eta ariketak egiteko trifasikoa salgai. Prezioa adosteko. 676 39 89 33

AMC markako eltze bat nahiko berria daukat salgai. Tel. 943 363 201

Oxelo markako patinete bat galdutugu frontoi inguruan. Aurkitzen baduzu deitu: 615 760 826 Izaro

Ingleseko klaseak ematen ditut 3-4 urteko haurretatik hasita. Klase dibertigarri eta alaiak gaztetxoentzat eta azterketen prestakuntza nerabeentzat. CPE tituluduna. Natali 635909606

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Atalluko Garbigunean. doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udalzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (Ilehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldetgia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneako Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaual Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 12 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Ostirala 13 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Larunbata 14 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Igandea 15 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Astelehena 16 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Asteartea 17 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Asteazkena 18 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Irailak 12 - Irailak 22

Osteguna 19 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 20 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Larunbata 21 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Igandea 22 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
CASTILLA-LARBURU
URBIETA KALEA, 7 HERNANI
943552941

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda iraila

13 ostirala

- Donostia Festibala, Zubietako hipodromoan. 18:25etik aurrera.
- Ikasturte hasierako askaria Bihurri ludo-terkan. 17:00etan.

14 larunbata

- Eguzki elkartearen 50. urtemuga festa. 11:00etatik aurrera Munalurran.
- Autobus zerbitzua Bilboko manifestazioa. 15:00etan Kiroldigitik. Izen ematea, ohiko tokietan.
- Donostia Festibala, hipodromoan.

15 igandea

- 12. Baxurde Krossa. 10:30ean frontoian.
- 56. Endika Abril Errebote Txapelketa. Zubieta-Hazparne, 11:00etan errebote plazan.

“47ak herrian” manifestaziora autobusez joateko aukera dago

Euskal presoen eskubideen defentsan eginiko lanagatik irailaren 16an Espainiako Auzitegi Nazionalan epaitzen hasiko diren 47 euskal herritarrei babesa adierazteko manifestazioa deitu da larunbatean (irailak 14) Bilbon. 17:30etan abiatuko da Kasillatik.

Irteera, Oiardo kiroldigitik

Hara joateko autobus zerbitzua antolatu da Usurbilen. 15:00etan abiatuko da Oiardo kiroldegi paretik. Izen ematea ohiko tokietan bideratu beharko da, irailaren 12ko arratsaldeko 16:00ak baino lehen.



Izen ematea, ohiko tokietan, irailaren 12a baino lehen.

Eguzki Elkarteak 50. urtemuga ospatuko du larunbat honetan

Mende erdia bete du Munalurrako Eguzki elkarteak. Arrazoi honengatik, jai giro batean ospatuko dute urtemuga boro-bila. Larunbat honetarako egun osoko egitaraua prestatu dute Eguzkiko kideek. Hauek iragarri dituzten ekitaldiak:

Irailak 14 larunbata

- 11:00 Helduentzako jokoak izango dira (Igela, Toka...).
- 14:30 Bazkari herrikoia elkartearen.
- 16:00 Haurrentzako jolasak eta musika egongo da.

Datozenak

Harria Hitz, marrazkilarien eskutik

Ikasturtea gogotsu eta umorez haste-ko, irailaren 28rako “Harria Hitz-Dzirt Dzart” ekimena prestatu du Ereiten Kultur Zerbitzuak enpresak. Izena ematen dutenek *Harria hitz* ibilbide gidatua osatuko dute lehenbizi eta *Dzirt-Dzart* saioaren lekuko izango dira gero. “Izenak berak dioen bezala, bat-batean marrazteko saioa da. Joseba Larratxe eta Antton Olariaga marrazkilariak eta Idoia Torregarai aurkezlea izango dira protagonistak”.

Marrazkilariak aurkezlearen esanetara

Marrazkilariek aurkezlearen esanetara marraztuko dute, bertso saioetan egin den moduan gutxi gorabehera.

Irailak 28, larunbata

- 10:00 Usurbilgo frontoian elkartu.
- 10:05 Harria Hitz bisita gidatua herri-gunean.
- 11:15 Dzirt-Dzart saioa Joseba Larratxe, Antton Olariaga eta Idoia Torregararekin.
- Azalpenak euskaraz emango dira.
- Informazioa eta erreserbak: 688 818 017 / info@kultour.pro
- Bisita doakoa izango da. Aldez aurretik izena ematea beharrezkoa da (25 lagun, gehienez).

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

ANTXETA
taberna-jatetxea

eguneko menuak
ogitartekoak
plater konbinatuak

Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

ADA
-MASAJEAK-

633 36 22 33
erreka-txiki 1, USURBIL



Ofizioen Gida



URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi.euskalnet.net

· ERAIKUNTZAK · OBRAK
· BERRITZE LANAK

Josue
Igeltseritza

Fax: 943 24 34 60
Atailu pol. atailu. 28
20170 - USURBIL

606 37 21 05

Igeltseritza orokorra

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

Telefona
693 059 392

e-posta:
uraitz@uraitz.com

Borda Berri Kalea, 2 3º A
20170 Usurbil. Apartado Correos, Nº 26

ITZIRA
ERAIKUNTZAK

· gremioen
koordinaketa
· berritze lanak
· sukaldeak
· komunak

943 530 337
607 119 313

errekatziki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

IRUARKAITZ
ERAIKUNTZAK, S.L.

· FATXADAK ETA TEILATUAK
· ERAIKUNTZAK · BARRUKO BERRIKUNTZAK
· URALITA KENTZEKO ENPRESA
BAIMENDUA

630 90 02 79 AGINAGA



PLAKODUR
Eskaiola eta Pladurra

943 00 85 44 - 634 45 78 78



Antonio
URRUZOLA
AROTZEGIA

Tel/Fax: 943 376 415
Asteasuain Industrialdea, 3

BARRENETXE
Salsamendi Arregi, Iñaki
AROTZEGIA

943 362 664
Barren Elxe kalea ZUBIETA

USURBIL
J. R. IBARGOEN S.L.

ZURGINTZA-SUKALDEAK
ALTZARI BEREZIAK

www.carpinteriaibargoien.arotzgi.net | jr.ibargoien@arotzgi.net

943 36 14 48 - 676 45 31 76



ARGILAN
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL



antenas
Telemar

943 55 33 99
info@antenastelemar.com

Elkano kalea 13, HERNANI



APARICIO
DEKORAZIOA ETA
PINTURA LANAK

Tel. 943 36 60 59 628 883 943
Puntapax, 3 - 3.B. 20170 USURBIL



Enrique Alonso
ITURGINTZA
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

Iñaki
Iturgintza

BEROKUNTZA · GASA · AIRE EGOKITUA
ZORU BERO-EMALEA
ITURGINTZA · ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com

Tfnoa.: 600 024 825

zuri
arain
iturgintza

TEL: 678 45 31 48 • 943 651 465
zuriarainiturgintza@gmail.com

Rafa
iturgindegia

· ITURGIN LAN OROKORRAK · DUTXAKO HANPARAK
· KONFINATZAZKO GREHIOAK · KOMUNEKO ALTZARIARIK

Bordaberri kalea 1, 1 beheka • 943 36 80 04



ANORGA TXIBI S.L.
KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak
· beira bikoitza · segurtasun beirak
· dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33 - 610 45 93 45
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA



maiz
hornigaiak

· TRESNERIA ETA ERREMINTAK
· EGUR ETA AROTZ-LANETARAKO HORNIDURA

suministrosmaiz.com (ONLINE DENDA ERE)
Ugaldea polig. 18, USURBIL 943 36 99 39


USURBILEN

bizi eta erosi

BALIO HANDIA DAUKA
HERRIKO DENDA TXIKIETAN EROSTEAK!

ADI EGON

Eroketak Usurbilen egitea
aukeratzen duten familiak
sarituko ditugu.



ZURE FIDELTASUNAK

saria du

Zozketarik
gabe!

100* € ko
5 sari

*100€ko opari txartela USURBILgo
establezimenduetan erosteko.



Usurbilgo Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

hurbilag

Usurbilgo Merkataritza eta Gaitasunak Elkarteak